

GUTUN KULTURALA - 2022ko IRAILA

Hitzordu kulturalak Azkainen

- Irailaren 13an, asteartearekin, **LARRUN KANTA** abesbatza, 21:15etan Azkaingo elizan.


ONDAREAREN EGUNAK, Irailaren 16an eta 17an

- Irailaren 16an, ostiralarekin, **TIPULAREN SEHASKA KANTA**, Lander Garro-ren filma dokumentala, 20:30etan Biltokin. 83mn. Euskaraz eta azpтитuluak frantsesez.

Diagnostiko bat egiteko edo tratamendu bat izateko medikuarenera joatea gauza arrunta da kanpoko munduan. Baina preso den ororentzat bide oso zaila edo ezinezkoa da. Lander Garro, zuzendaria, kartzelan gaixo egotearen esperientzia bizi izan dutenengana joanga da, zer ondorio duen hobeki ulertzeko. Diskurtso politikotik harago doan hizkuntza erabiltzen du, osasunerako eskubiderik ez duten presoan indefentsioa emozioen ikuspegitik esploratuz, artefakto zinematografikoaren baten bidez.

Film politikoa baino gehiago film artistikoa da **Tipularen sehaska kanta**, lehen pertsonan eta hesteetatik kontatua. 1942An kartzelan hil zen Miguel Hernandez poeta espainiarraren “Nana de la cebolla” olerkitik abiatuta, analogia historikoa egiten du filmak : 1936ko gerran preso hiltzeak zentzurik ez bazuen, zentzurik ba ote du gaur ?

Filmaren proiektzioa Lander Garro zuzendariaren aurrean egingo da.



- Irailaren 17an, larunbatarekin, **APAIZ KARTZELA** filma dokumentala, Biltokin. Iraupena : 85mn
- Euskaraz eta azpтитuluak frantsesez. Zuzendariak : R. Lizartza, D.Pallarès, O. Arançabal

1968 eta 1976 artean 50 bat apaiz (gehien gehienak Euskal Herrikoak) kartzelatu zituzten Francisco Franco diktadorearen errepresioaren aurkako jarrera erakusteagatik. Sermoieta diktaduraren zapalkuntza salatzeagatik hamabi urteko kartzela-zigorrak jaso zituzten apaiz horiek nekez ahaztuko dituzte nazioarteko komunikabideetako albistegiek 1973. urtean eman zituzten mutinaren irudiak. Izan ere, Zamorako (Espainia) konkordatu-kartzelari su eman zioten bertan preso zeuden apaizek.

Honako hau mundu osoan izan den apaiz kartzela bakarraren historia da, Francoren diktadura faxistaren eta Vatikanoren artean sortua konkordatua zela eta. Eskubide zibilak defendatzeagatik kartzelatuak izan eta tunel bat beren eskuez eginda ihes egiten saiatu ziren apaizen historia. Hamarkada batzuk beranduago, diktadorea aspaldi hil zen arren, gure protagonistek eutsi egiten diote memoriari, gertatutako guztia ahanzturan eror ez dadin.

Luzea da Zamorako espetxean preso egondako abadeen zerrenda, eta horietako askoren testigantzak bildu dira dokumentalean: Xabier Amuriza; Josu Naberan; Juan Mari Zulaika; Eduard Fornés; Julen Kaltzada; Jon Etxabe; Periko Solabarria; Periko Berriategortua; Juan Mari Arregi; Martin Orbe; Felipe Izagirre; Lukas Dorronsoro; Vicente Couce; Nicanor Acosta; Mariano Gamo; Josep Maria Garrido; Andreu Vila; Jose Antonio Calzada; Lukas Dorronsoro; Mikel Zuazabeitia eta Pablo Muñoz.



Sartzeak :

- Dokumentala batentzat : 10€ Helduak (15+) - 5€ Prezio apalduak
 - 2 dokumentalentzat : 7€ Helduak (15+) - 3€ Prezio apalduak
- Salgai egun berean Biltokin
Kultura & Euskara Batzordeak programaturik

BESTE GERTAKARIAK :

- Irailaren 18an, igandearekin, uda huntako azken eskulangile ta sortzaileen Krea'Merkatua, 10:00etatik 18:00arte, Azkaingo plazan
- Irailaren 24an, larunbatarekin, Sky Rhune lasterketa
- Irailaren 25an, igandearekin, Selauru Hustea, 9:00etatik 18:00arte, Erromano zubian, Les Amis du Jumelage antolaturik.

